

2025eko
**AZAROKO
PROGRAMAZIOA**



Vértigo
(A. Hitchcock)
1958

AURKIBIDEA

2025eko
AZAROA

 HIRIA ZINEMA KLASIKOAN

 NAFARROAKO FILMOTEKA

 AFRIKAKO ZINEMAK:
HISTORIAREN OIHARTZUNAK

 ATENEOK AURKEZTEN DU...

 IRLANDAKO ZINEMA
ERAKUSTALDIA

 SAIO BEREZIA

 PUNTO DE VISTA FOKUA

 FILMOTEKA NAFARROAN

Nueva York. La ciudad desnuda (*Naked City*)

Asteazkena 11.05 | 19:00h.

Or. 5

Viena. El tercer hombre (*The Third Man*)

Asteazkena 11.12 | 19:00h.

Or. 6

Roma. Vacaciones en Roma (*Roman Holiday*)

Asteazkena 11.19 | 19:00h.

Or. 7

San Francisco. Vértigo (*Vertigo*)

Asteazkena 11.26 | 19:00h.

Or. 8

Los sueños de cartón

Osteguna 11.06 | 19:30h.

Or. 10

El relevo

Osteguna 11.20 | 18:00h.

Or. 11

Katanga - La danza de los escorpiones (*Katanga - La danse des scorpions*)

Ostirala 11.07 | 19:30h.

Or. 13

Didy

Ostirala 11.14 | 19:30h.

Or. 14

Goodbye Julia

Ostirala 11.21 | 19:30h.

Or. 15

After The Long Rains (*Baada Ya Masika*)

Ostirala 11.28 | 19:30h.

Or. 16

Besos robados (*Baisers volés*)

Osteguna 11.13 | 19:30h.

Or. 18

Hombres de Arán (*Man of Aran*)

Larunbata 11.15 | 19:00h.

Or. 20

El hombre tranquilo (*The Quiet Man*)

Larunbata 11.22 | 19:00h.

Or. 21

Manhattan

Osteguna 11.20 | 19:30h.

Or. 23

Unicornio. San Simón 62. Contadores

Osteguna 11.27 | 19:30h.

Or. 25

Gattaca

Lunes 11.17 | 19:00h. Or. 26

En el balcón vacío

Asteazkena 11.19 | 19:00h.

Or. 27

Gattaca

Ostirala 11.21 | 19:00h. Or. 28

Información útil

Or. 29

EGU- TEGIA

2025eko
AZAROA



LA CIUDAD EN
EL CINE CLÁSICO



NAFARROAKO
FILMOTEKA



AFRIKAKO
ZINEMAK:
HISTORIAREN
OIHARTZUNAK



ATENEOK
AURKEZTEN DU...



IRLANDAKO
ZINEMA
ERAKUSTALDIA



SAIO
BEREZIA



PUNTO DE VISTA
FOKUA

ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
5 -19:00h. HIRIA ZINEMA KLASIKOAN NUEVA YORK. La ciudad desnuda (Naked City) Jules Dassin (AEB, 1948) 91' - V.O.S.E	6 -19:30h. NAFARROAKO FILMOTEKA Los sueños de cartón Mikel Lahidalga (Espainia, 2025) 40'	7 -19:30h. AFRIKAKO ZINEMAK: HISTORIAREN OIHARTZUNAK Katanga - La danza de los escorpiones (La danse des scorpions) Dani Kouyaté (Burkina Faso, 2024) 113' - V.O.S.E	
12 -19:00h. HIRIA ZINEMA KLASIKOAN VIENA. El tercer hombre (The Third Man) Carol Reed (Reino Unido, 1949) 104' - V.O.S.E	13 -19:30h. ATENEOK AURKEZTEN DU... Besos robados (Baisers volés) François Truffaut (Francia, 1968) 90' - V.O.S.E	14 -19:30h. AFRIKAKO ZINEMAK: HISTORIAREN OIHARTZUNAK Didy Gâel Kamilindi eta François-Xavier Destors (Frantzia, Ruanda, Suitza, 2024) 93' - V.O.S.E	15 -19:00h. IRLANDAKO ZINEMA ERAKUSTALDIA Hombres de Arán (Man of Aran) Robert Flaherty (Reino Unido, 1934) V.O.S.E © Civivox Condestable
19 -19:00h. HIRIA ZINEMA KLASIKOAN ROMA. Vacaciones en Roma (Roman Holiday) William Wyler (AEB, 1953) 118' - V.O.S.E	20 -18:00h. NAFARROAKO FILMOTEKA El relevo David Mendizábal eta Bárbara Fernández (Espainia, 2024) 14' 20 -19:30h. SAIO BEREZIA Manhattan Woody Allen (AEB, 1977) 96' - V.O.S.E	21 -19:30h. AFRIKAKO ZINEMAK: HISTORIAREN OIHARTZUNAK Goodbye Julia Mohamed Kordofani (Sudán, Suecia, Alemania, Arabia Saudí, Francia, Egipto, 2023) 120' - V.O.S.E	22 -19:00h. IRLANDAKO ZINEMA ERAKUSTALDIA El hombre tranquilo (The Quiet Man) John Ford (AEB, 1952) V.O.S.E © Civivox Condestable
26 -19:00h. HIRIA ZINEMA KLASIKOAN SAN FRANCISCO. Vertigo Alfred Hitchcock (AEB, 1958) 120' - V.O.S.E	27 -19:30h. PUNTO DE VISTA FOKUA Unicornio + San Simón 62 + Contadores Irati Gorostidi 65'	28 -19:30h. AFRIKAKO ZINEMAK: HISTORIAREN OIHARTZUNAK After the Long Rains (Baada Ya Masika) Damien Hauser (Kenya, Suiza, 2024) 91' - V.O.S.E	

Filmoteca
de Navarra

Nafarroa
ko Filmoteka

nido

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua




PUNTO DE VISTA



CIVIVOX



HIRIA ZINEMA KLASIKOAN



Nafarroako Filmotekak eta Arkitektura eta Gizartea Fundazioak "Hiria zinema klasikoan" programa eskainiko dute azaroko asteazkenetan, klasizismoaren eta bere maisuen adierazgarri diren lau film handik osatua. Manuel Hidak komisariatutako zikoak erakusten du, zinema-genero desberdinetako film askok hirien –beren eraikinen eta beren sare sozial bereizgarriaren– ikuspegi bat ematen dutela istorio eta argumentu desberdinen bidez, hiriko bizitza eta espazioaren funts dokumentala ahalbidetzen dutenak.

Aukeratutako filmek zinegile eta aditu ospetsuen aurkezpena eta solasaldia izango dute, eta honako hauek dira: New Yorki buruz, *La ciudad desnuda* (Jules Dassin, 1948), thriller poliziala; Vienari buruz, *El tercer hombre* (Carol Reed, 1949), gerra osteko drama; Erromari buruz, *Vacaciones en Roma* (William Wyler, 1953), komedia sentimentala eta, San Frantziskoari buruz, *Vértigo* (Alfred Hitchcock, 1959), intriga kriminala. Saioak Ángeles González Sindek, Agustín Sánchez Vidalek, Carlos Marañónek eta Carlos F. Herederok aurkeztuko dituzte.

PARTE HARTZAILEAK:

- **Ángeles González Sinde.** Zinema zuzendaria eta gidoilaria. Idazlea. Zinema Akademiako presidente ohia eta Kultura ministro ohia.
- **Agustín Sánchez Vidal.** Zaragozako Unibertsitateko Zinemaren Historia katedraduna. Zinema eta beste gai batzuetako gidoilaria eta saiakeragilea. Eleberrigilea.
- **Carlos Marañón.** "Cinemanía" aldizkariko zuzendaria. Idazlea eta Zinema-kritikaria.
- **Carlos F. Heredero.** Historialaria, kritikaria, saiakeragilea eta zinema-irakaslea. "Caimán" aldizkariaren sortzailea, zuzendari ohia eta egungo editorea.
- **Manuel Hidalgo.** Zinema-kritikaria eta gidoilaria. Idazlea. "El Cultural" astekariaren zuzendari ohia.

NUEVA YORK. LA CIUDAD DESNUDA. (*Naked City*)

Asteazkena 11.05 | 19:00h.



Goizeko ordu bata da New Yorken. Itzalen babespean, bi gizonen Jean Dexter modeloa hotz-hotzean hilko dute. Daniel Muldoon hilketa-tenienteak eta Jimmy Halloran detektibe gazteak beren gain hartuko dute kasua. Hiriaren bihotzak taupadaka jarraituko du.

La ciudad desnuda zinema beltzaren klasiko bat da eta Hollywoodeko Jules Dassinen lanik onenetakoa. New Yorkeko kaleetan filmatuta, pelikulak hiriaren 40ko hamarkadako arima erakusten du, hiri baten pultsua. Bi Oscar sari lortu zituen, bata Muntaketa Onenari eta beste Zuri-beltzeko Argazki Onenari, eta 2007tik Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegiko Zinemaren Erregistro Nazionalean babestuta dago, duen garrantzi kultural eta historikoagatik.

Zuzendaria: Jules Dassin

Gidoilariak: Albert Maltz, Malvin Wald

Argazkilaritza: William H. Daniels (Z/B)

Musika: Miklós Rózsa, Frank Skinner

Interpreteak: Barry Fitzgerald, Howard Duff, Dorothy Hart, Don Taylor, Frank Conroy, Ted de Corsia

Herrialdea, Urtea
AEB, 1948

Iraupena
91 min

Hizkuntza

J.B. ingelesez; azpituluak gaztelaniaz

Saio honen aurretik, zuzendari, gidoilari eta Kultura ministro ohi Ángeles González Sinderen eta Manuel Hidalgo idazlearen arteko elkarrizketa izango da, Hiria zinema klasikoan zikloaren inguruan.

Aurkezpena eta elkarrizketa Manuel Hidalgo eta Ángeles González Sinde (Zinema zuzendaria eta gidoilaria. Idazlea. Zinema Akademiako presidente ohi eta Kultura ministro ohi.)

VIENA. EL TERCER HOMBRE

(The Third Man)

Asteazkena 11.12 | 19:00h.



Viena, 1949. Hiria Bigarren Mundu Gerrako lu potentzia garaileen indar militarren kontrolpean dago. Holly Martins idazle amerikar kaskarra, Vienarajoango da Harry Lime bisitatzera, lana agindu dion haurtzaroko laguna. Heltzean, Lime trafiko istripu arraro batean hil dela jakingo du eta gertatutakoa ikertzea erabakiko du.

Graham Greene idazlearen eleberrian oinarrituta, *El tercer hombre* britainiar zinema beltzeko film handienetako bat da. Protagonista nagusia gerraren ondoren okupatu eta suntsitutako Viena da, urritasuna, pobrezia eta gosea nagusi diren hiria. Filmak Oscarretarako hiru izendapen jaso zituen eta Zuri-beltzeko Argazki onenaren Saria eskuratu zuen. Gainera, Cannesko Zinemaldiko Sari Nagusia eta BAFTA sarietan Britainiar Film Onenaren saria jaso zituen.

Zuzendaria: Carol Reed

Gidoilariak: Graham Greene

Argazkilaritza: Robert Krasker (Z/B)

Musika: Anton Karas

Interpreteak: Joseph Cotten, Orson Welles, Alida Valli, Trevor Howard, Bernard Lee

Herrialdea, Urtea
Reino Unido, 1949

Iraupena
104 min

Hizkuntza

J.B. ingelesez; azpitituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta elkarrizketa Agustín Sánchez Vidal (Zaragozako Unibertsitateko Zinemaren Historia katedraduna. Zinema eta beste gai batzuetako gidoilaria eta saiakeragilea. Eleberrigilea.)

ROMA. VACACIONES EN ROMA

(Roman Holiday)

Asteazkena 11.19 | 19:00h.



Ana, Europa erdialdeko herrialde bateko printzesa, bere benetako betebeharren aurka oldartuko da, eta Erroma bere kasa bisitatzea erabakiko du. Han Joe Bradley ezagutuko du, eksklusiba baten bila dabilen kazetari amerikar bat. Bere benetako nortasuna ezagutzen ez duelako itxurak egiten ditu, eta planak porrot egiten du neskaz maitemintzean.

Vacaciones en Roma komedia erromantikoa da, eta Betiko Hiriko kaleetan kokatzen gaitu. Hepburnen lehen lan handia izan zen, bere ibilbide zinematografikoa bultzatuko zuena, eta Emakumezko Aktore Onenaren Oscar saria jaso zuen. Honetaz gain, filmak beste bi Oscar sari irabazi zituen: Zuri-beltzeko film baterako jantzirik onenarena eta Argumentu original onenarena.

Zuzendaria: William Wyler

Gidoilariak: Ian McLellan Hunter, John Dighton, Dalton Trumbo

Argazkilaritza: Franz Planer (Z/B)

Musika: Georges Auric

Interpreteak: Gregory Peck, Audrey Hepburn, Eddie Albert, Hartley Power, Harcourt Williams, Margaret Rawlings

Herrialdea, Urtea
AEB, 1953

Iraupena
118 min

Hizkuntza

J.B. ingelesez; azpituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta elkarrizketa: Carlos Marañón (Cinemanía" aldizkariko zuzendaria. Idazlea eta Zinema-kritikaria)

SAN FRANCISCO. VÉRTIGO

(Vertigo)

Asteazkena 26.11 | 19:00h.



Scottie Fergusson San Frantziskoko poliziako detektibe bat da. Erlaitza batetik lagun bat erori eta gero, beldur handia die altuerei, eta bertigoak sortzen dizkio. Fergussonek lana utzi eta bakardadean bizi da, harik eta Gavin Elsterrek, ikastetxeko aspaldiko lagun batek, oso portaera arraroak dituen bere emazte Madeleine zelatzeko kontratatzen duen arte.

Vértigo Pierre Boileau eta Thomas Narcejac-en *D'entre les morts* (1954) eleberriaren egokitzapena da, nahiz eta bi desberdintasun nagusi dauden: girotzea eta amaiera erabat ordezkatu ziren. Filma Hitchcocken maisulan handitzat hartzen da eta beti agertzen da zinemaren historiako film onenei buruzko adituen zerrendetan. *Vértigo* Donostiako Zinemaldian estreinatu zen, eta zuzendari onenaren eta aktore onenaren sariak eskuratu zituen.

Zuzendaria: Alfred Hitchcock

Gidoilariak: Alec Coppel, Samuel A. Taylor

Argazkilaritza: Robert Burks(K)

Musika: Bernard Herrmann

Interpreteak: James Stewart, Kim Novak, Barbara Bel Geddes, Tom Helmore y Henry Jones

Herrialdea, Urtea
AEB, 1958

Iraupena
128 min

Hizkuntza

J.B. ingelesez; azpituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta elkarrizketa: Carlos Marañón (Historialaria, kritikaria, saiakeragilea eta zinema irakaslea. "Caimán" aldizkariaren sortzailea, zuzendari ohia eta egungo editorea.)

NAFARROAKO FILMOTEKA



Atal honetan Nafarroarekin lotura duten ekoizpen zinematografiko guztiak erakusten dira, edozein formatutan. Filmotekan kontserbatu eta zabaltzeko interesgarria diren ikus-entzunezko material guztiak biltzen dira; Nafarroako Filmotekako proiektzio-aretoak, obra horiek sustatzeko eta aintzatesteko eszenatoki izateko duen bokazioari jarraituz, dokumentu horiek biltzen ditu atal honetan.

Nafarroako Filmotekak ***Los sueños de cartón*** dokumental jasotzen du bertako zine saiorako, Ixabako aretoan ikusi ahal izango zen zine programa iragartzen zuten karteletatik sortutako errotulu sinbolikoa. Izaba bere zinematografoa aktibo mantentzen duen eta bere historia txikia gogora ekarri duen herria da. Baina kartoia ez zen kartelena bakarrik, bailaran jasotzen zutena baizik, Zangozako zakarrontziari saltzeko eta zinema irekita mantentzeko baliabideak lortzeko.

Dokumental honetan, lokal honetan ametsen eta ilusioaren munduarekin bat egiten duten herriko bizilagunen memoria berreskuratzen da. Landa zine askotan, gehienak parrokiakoak, Ixabakoa kasu (bertako José M^a Labiano, Juan Ordoki eta Jesús Arbeloa parrokoek kudeatzen dute), herri honetako aretoak -1952an inauguratu zen eta Erronkaribarrean jardunean dagoen bakarrebere oroitzapenak betirako gorde nahi izan ditu dokumental honetan. Ixabako Zine elkarteak eta herriko udalak, gaur egun aretoaren jabeak, bultzatuta, joan den ekainean estreinatu zen Ixabako Zinemaren Egunaren ospakizunean.

Generazinema errealizazioen aurkezpenaren barruan, David Mendizabalek eta Bárbara Fernándezek zuzendutako *El Relevo* film laburra estreinatuko dugu Nafarroako Filmotekan. Zuzendariek proiektzioan egongo dira, filma aurkezteko eta, ondoren, solasaldia eskaintzeko.

LOS SUEÑOS DE CARTÓN

Osteguna 11.06 | 19:30h.



Elkarriketa, testigantza eta bizipenen bidez, dokumentalak Iزابako zinemaren historia eta bilakaera erakusten digu. Baina, batez ere, ikus dezakeguna boluntariotzatik zinemak bizirik eta martxan jarrai dezan egin den lana da.

Iزابako Udalarekin, Iزابako Zinemaren Kultur Elkartarekin, Kurrus-
kla Kultur Elkartarekin eta El Sabaiao Lantaldearekin elkartuta egin-
dako dokumentala.

Zuzendaria: Mikel Lahidalga Zalduegui

Argazkilaritza: Mikel Lahidalga
Zalduegui, Alberto García Sesma,
Felipe Barroso Carrillo

Musika: Mikel Lahidalga Zalduegui,
SUNO

Parte hartzaileak: Alaia Anaut Sanz,
Maider Anaut Sanz, Alaia Aznarez
Beretens, Iraia Barcina Ayesta,
Gari Bueno Alberdi, Mara Ederra Galé,
Amaia Glaria Alcat, Amalur Larraya
De Miguel, Mikel Merino Alcat, Luka
Quilodran Pascual, Iradi Sierra
Marcellan, Borja Ezquer Anaut

 **Herrialdea, Urtea**
Espainia, 2025

 **Iraupena**
40 min

 **Hizkuntza**
J.B. gaztelaniaz

 **Aurkezpena eta elkarriketa** Mikel Lahidalga, Carlos Anaut eta Iñaki de Miguel

EL RELEVO

Osteguna 11.20 | 18:00h.



Gazte bat konorterik gabe uzten duen istripuaren lekuko bakarra izanik, rider, gazte bat, lana aurkitzeko etsita, bere bizikleta, motxila eta mugikorra lapurtzea eta bere itxura hartzea erabakitzen du.

Film labur honek Generazinema laguntzak ditu.



Zuzendaria: David Mendizábal, Bárbara Fernández

Gidoilariak: Inés González, Martí Juan Batet

Argazkilaritza: David Mendizábal

Interpreteak: Ninton Sánchez

Herrialdea, Urtea
Espainia, 2024

Iraupena
14 min

Hizkuntza
J.B. gaztelaniaz

Aurkezpena eta solasaldia: David Mendizábal eta Bárbara Fernández

AFRIKAKO ZINEMAK: HISTORIAREN OIHARTZUNAK



Afrika ezinbestekoak 25 urte ospatuko ditu gaur egun kritikak, publikoak eta nazioarteko jaialdiek baloratutako film afrikarren hutsik gabeko aukeraketaren bidez. Produkzio horiek maila globalean gero eta aintzatespen handiagoa dutela frogatuz, diasporako zuzendari gazteek eta finkatutako artistek egindako Burkina Faso, Ruanda, Sudan eta Keniako tituluak sartuko ditugu. Zinema-bidaia proposatzen dugu edizio honetan, zinema-estilo eta – generoen erabileran maisutasuna, zabalpen unibertsala duten istorio intimoak kontatzeko heldutasuna eta, ekoizpen independentetik abiatuta, beste pantaila batzuetatik eskuraezinak diren errealitateak ezagutzeko irrikan dauden ikusleak konektatzeko eta gogoeta egitera behartzeko trebetasuna ospatzeko.

Daniela Ricci espezialistak lagunduta, Dani Kouyaténen **Katanga – la danza de los escorpiones** (FESPACO 2025 film irabazlea) filmak handitasunez zikloari hasiera emango dio. Griots profesionalen familia baten ondorengoa eta Sotigui Kouyaté aktore ezagunaren semea, Dani Kouyaték Macbethen Afrikako lurretako zure-beltzeko denboraz kanpoko egokitzen aurreratu digu. Boterea lortzeko borrokaren giza ondorio katastrofikoaren azterketa psikologikoak ezingo luke gaurkotasan handiagorik izan.

Gäel Kamilindyk emakume ruandarren erretratu korala eskaintzen du bere dokumental intimo familiarrarekin: **Didy**. Argazkien, Ruandara itzultzearen eta bere izeben eta amaren (duela 30 urte hil zena) lagunaren oroitzapenen bidez, zuzendariak euren bizitzak gerrengatik eta HIESagatik eraldatzera behartutako emakumeen belaunaldi oso baten historian murgiltzera bultzatuko gaitu. 2011ko sezesioaren aurreko uneetan Sudanen kokatua, **Goobye Julia**, Mohamed Kordofanik idatzi eta zuzendua, pertsonaia ahaztezinako drama femeninoa da, banantzean, mendekuan eta damuan oinarritutako trama duena, istorio zalapartatsuko herrialde batean adiskidetzearren beharrari buruz hausnartzeko.

Damien Hauserrek, bere belaunaldiko ahotsik interesgarrienetako bat, heldutasunera heltzeko bidea Aisharekin batera egingo du, **Tras las largas lluvias** pelikulan. Gidoia, filmazioa eta soinu-banda bere gain hartuz eta aurrekontu txikiarekin, emakumeen ahalduz, belaunaldien arteko borroka eta Afrikako tradizioaren eta mendebaldeko balioen arteko talka bezalako gaiak planteatzen dizkigu, publiko guztien gozamenerako.

Beatriz Leal Riescok zikloa aurkeztu eta zuzenduko du. Afrikan, Asian eta Ekialde Hurbilean espezializatutako arte zinema ikertzaile, komisario eta kritikaria, AFRIKALDIA IFFko (Euskadi) programazio zuzendaria, kritikaria eta komisari independentea da arte zentro eta filmoteka nazional eta nazioartekoentzat.



KATANGA – LA DANZA DE LOS ESCORPIONES

(Katanga – La danse des scorpions)

Ostirala 11. 07 | 19:30h.



Shakespeareren Macbeth-en egokitzapen ausarta da, botereari eta anbizioari buruzko istorio unibertsal eta betikoa, Dani Kouyaté zuzendari burkiniar ospetsuak egin. Zuri-beltzeko dramaz filmatuta, Pazouknaam erregearen aurkako konspirazio huts baten ondoren hasten da filma. Errege horrek bere lehengusu Katanga izendatu du indar armatuen buru. Bere emazte handinahiak bultzatuta, Katangak erregea hil eta tronua bereganatuko du, eta une horretatik edozein gauza egiteko gai izango da bere botereari eusteko.

Zuzendaria eta Gidoilariak:

Dani Kouyaté

Argazkilaritza: Marc de Backer (Z/B)

Musika: Dramane Dembélé,
Pascal Zander

Interpreteak: Prosper Campaore,
Hafissata Coulibaly, Hadissa Ilboudo,
Joséphine Kaboré, Lazare Kaboré
Lazare Minoungou, Mahamadi
Nana, Issa Ouedraogo, Rasmané
Ouédraogo, Charles Wattara

Herrialdea, Urtea
Burkina Faso, 2024

Iraupena
113 min

Hizkuntza

J.B. mòorez; azpitituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta elkarrizketa: Beatriz Leal eta Daniela Ricci

DIDY

Ostirala 11.14 | 19:30h.



Ama, Didy, hil zitzaionean, Gaëlek bost urte zituen. Bere presentziaren oroitzapena galdu egin da gerra zibilen, genozidioaren eta HIESaren zurrubiloan, Burundi eta gero Ruanda suntsitu eta Gaël Suitzara erbestera behartu zuten hondamendietan. Hogeita hamar urte geroago, bere familiaren historiaren orriak irekitzera ausartuko da, ama ezagutu zutenekin bilduz. Bere oroimenaren eta istorioen bidez, ama eta emakume ruandarren belaunaldi oso baten erretratua erakutsiko digu.

Zuzendaria eta gidolaria: Gaël Kamilindi eta François-Xavier Destors
Argazkilaritza: Eva Sehet (K)

 **Herrialdea, Urtea**

Frantzia, Ruanda,
Suitza, 2024

 **Iraupena**

93 min

 **Hizkuntza**

J.B. frantsesez. Azpitituluak
gaztelaniaz

 **Aurkezpena eta solasaldia:** Beatriz Leal

GOODBYE JULIA

Ostirala 11.21 | 19:30h.



2011n Hego Sudanen sezesioa baino lehentxeago, herrialdeko iparraldeko abeslari ohi ezkondu bat berrerospenaren bila dabil, hegoaldeko gizon baten heriotza eragiteagatik eta, bere emaztea neskame kontratatuko du. Tentsioak areagotu eta sekretuak argitara ateratzeko mehatxua agerian ego narren, bi emakumeek ustekabeko lotura sortuko dute.

Zuzendaria eta gidoilariak:

Mohamed Kordofani

Argazkilaritza: Pierre de Vielliers (K)

Musika: Mazin Hamid

Interpreteak: Eiman Yousif, Siran Riak, Nazar Gomaa, Ger Duany

Herrialdea, Urtea

Sudan, Suedia, Alemania, Saudi Arabia, Frantzia, Egypto, 2023

Iraupena

120 min

Hizkuntza

J.B. arabieraz; azpitituluak gaztelaniaz

Aurkezpena: Nafarroako Afrika Ezinbestekoa Partzuergoa/ Consorcio África Imprescindible Navarra

AFTER THE LONG RAINS

(Baada Ya Masika)

Ostirala 11.28 | 19:30h.



Wamatun, Kenyako kostaldeko hiri ederrean, hurrek gurasoen ibilbidea jarraitzea espero da, baina Aishak zerbait desberdina nahi du eta aktore bihurtzeko Europara joatearekin amesten du. Bere irudimen eta xarmari esker, Hassani, bertako arrantzaleari, uretan nabigatzen eta bere ametsak betetzeko itsasoratu ahal izateko laguntza eskatuko dio. Eraitza heldutasun istorio bikaina da, poesia bisualer betea.

Zuzendaria eta gidoilariak:

Damien Hauser

Argazkilaritza: Damien Hauser (K)

Musika: Damien Hauser, Simon Joss

Interpreteak: Eletricer Kache Hamisi, Bosco Baraka Karisa, Bibi Swaleh, Nahima Khanda

Herrialdea, Urtea

Kenia, Suiza, 2024

Iraupena

91 min

Hizkuntza

J.B. suajiliz; azpituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta solasaldia: Beatriz Leal

ATENEOAK AURKEZTEN DU...




Azaroan eta abenduan, *El viento sopla donde quiere* liburuaren aurkezpenarekin batera, Nafarroako Ateneoaren zinemaren ordezkariak baimen osoa eskaini dio egileari, Jonás Trueba zinemagileari, hain zuzen. Ekimen honen barruan, lehenengo saiorako aukeratutako filma *Besos robados (Baisers volés)* François Truffautena izan da, liburuan gehien aipatzen eta gogoratzen den zuzendarietako bat.

François Truffaut (1932-1984) zinema frantseseko zinegile ospetsu eta maitatuenetako bat izan zen, eta *Nouvelle Vague*ko kide nabarmenetakoa. Bere karrerak, bere heriotza goiztiarrak etena, film ugari biltzen ditu, *Los 400 golpes* (Les 400 coups, 1958), *Jules y Jim* (Jules et Jim, 1962), *La noche americana* (La nuit américaine, 1973) edo *El último metro* (Le dernier métro, 1980) bezalako izenburu ikonikoekin. Zuzendari izatearekin batera, idazlea ere izan zen, Cahiers du Cinéma aldizkarian artikulu ugari edo *El cine según Hitchcock* bezalako liburu garrantzitsuak sortuz. Jonás Truebak esango du berari buruz "Zinemagile erromantiko nagusia dela; baina erromantikoa zentzu garbi eta primitiboenean, Isaiah Berlinek Johann Gottfried Herderri, mugimendu haren aitatzat hartzen zenari, ematen zion ildoan: *haien ustez artelan bat norbaiten adierazpena da, hitz egiten digun ahots bat da beti. Gizaki baten ahotsa beste gizaki bati zuzentzen da*. Truffaut zinearen ideia hori ondoen gorpuztu duen zinemagilea da, baina are gehiago zinemarekiko maitasun horren transmisioarena".



BESOS ROBADOS (*Baisers volés*)

Osteguna 11.13 | 19:30h.



Antoine, men ez egiteagatik armadatik kanporatua izan ondoren, Christine bere neskalaguna izan zena bisitatzera joango da. Haren aitak Antoineri aldi baterako lana hotel bateko gaueko zaindari gisa aurkituko dio. Hala ere, detektibe pribatu baten erruz, enplegua lehen egunean galduko du. Konpentsatzeko, detektibeak lana eskainiko dio bere agentzian. Arazo txikiez arduratu ondoren, zapata-denda batean egin beharreko misio bat jasoko du. Bertan, Antoinek Fabienne ezagutuko du, jabearen emaztea.

Besos robados pelikula François Truffauten film ikonikoenetako bat da, Antoine Doinel sagaren jarraitzailea, *Los 400 golpes* filmarekin hasi eta *Antoine eta Colette*ekin jarraitu zuena. Frantziako historia berriko hilabeterik zurrunbilotsuenetako batean filmatu zen, Henri Langlois Zinematekatik kaleratzea eta 68ko Maiatza barne, eta zenbait kritikarik zinemaren historiako komedia erromantikorik onenetakotzat jo dute.

Zuzendaria: François Truffaut

Gidoilariak: François Truffaut, Bernard Revon, Claude de Givray

Musika: Antoine Duhamel

Argazkilaritza: Denys Clerval (K)

Interpreteak: Jean-Pierre Léaud, Claude Jade, Delphine Seyrig, Michael Lonsdale, Harry-Max, André Falcón, Daniel Ceccaldi, Claire Duhamel

Herrialdea, Urtea
Francia, 1968

Iraupena
90 min

Hizkuntza

J.B. frantsesez. Azpitituluak gaztelaniaz

Aurkezpena eta elkarrizketa: Jonás Trueba

IRLANDAKO ZINEMA ERAKUSTALDIA



Irlandako historia bere filmen bidez ere kontatzen da. "Hombres de Arán" kostalde basatietatik "El secreto del Libro de Kells" animazio magikoraino, ziklo honek Irlandako zinemaren ia mende bate bidaia egitera gonbidatzen gaitu, tradizioaren eta modernitatearen artean. Lanbako itza herribateen identitatearen isla da: landa-eremuko Irlandako eguneroko bizitza, independentziaren aldeko borroka, zoritxarrari barre egiteko argitasuna eta berezko munduekin amets egiteko gaitasuna. Aukeraketa honetan "El hombre tranquilo" bezalako klasiko maitagarriak, "Mi pie izquierdo" bezalako gainditze-adierazpenak, "Belfast" bezalako dram historikoak eta "Despertando a Ned" bezalako komedia argitsuak eskainiko dira. Historia, paisaia eta sentiberatasun artistikoan izugarria den herrialde baten begiraden aniztasuna erakusten digun ibilbidea. Zinemak Irlandarekin eskaintzen digun kultur zubia.



CIVIVOX



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala

HOMBRES DE ARÁN *(Man of Aran)*

Larunbata 11.15 | 19:00h.



Aran uharteetako biztanleen eguneroko bizitzari buruzko dokumentala. Eguneroko biziraupenaren aldeko borroka erakusten du, gizakiaren eta naturaren arteko borroka eta, batez ere, itsasoko lanaren gogortasuna, itota hiltzea itsasoko munstroari ordaindu beharreko zerga dela uste duten gizakiek eginga. Uharteetako familia baten eguneroko zereginak kontatzen ditu: haitz bizian zuloak egitea eta lurrez betetzea, bertan landatu ahal izateko, algak bildu eta garraiatzea, gizonak itsasora ateratzea, sufrimendua eta arrisku eta gabezien etengabeko mehatxua.

Zuzendaria: Robert J. Flaherty

Gidoilariak: Robert J. Flaherty, Frances H. Flaherty, John Goldman

Musika: John Greenwood

Argazkilaritza: Winton C. Hoch

 **Herrialdea, Urtea**
Erresuma Batua, 1934

 **Iraupena**
75 min

 **Hizkuntza**

J.B. ingelesez; azpitituluak gaztelaniaz


 **Civivox Condestable**

 **Aurkezlea** Cóilin Ó hAodha

EL HOMBRE TRANQUILO

(The Quiet Man)

Larunbata 11.22 | 19:00h.



Sean Thornton, boxeolari amerikarra, Irlandara itzuliko da bere base-
rria berreskuratu eta iragana ahazteko. Iritsi bezain laster, Mary Kate
Danaherrekin maiteminduko da. Oso neska jatorra da, baina aldar-
tetsua. Berarekin egoten lortzeko oztopo handiak gainditu beharko
du. Ezkonsaria ordaintzea eta, gainera, emaztegaiaren anaia aurka
agertzea izango dira oztopo horietako batzuk.

Zuzendaria: John Ford

Gidoilariak: Frank S. Nugent,
John Ford.

Argazkilaritza: Frank S. Nugent,
John Ford (K)

Musika: Victor Young

Interpreteak: John Wayne, Mau-
reen O'Hara, Barry Fitzgerald, Arthur
Shields, Ward Bond, Victor McLaglen,
Mildred Natwick, Francis Ford

 **Herrialdea, Urtea**
AEB, 1952

 **Iraupena**
129 min

 **Hizkuntza**

J.B. ingelesez; azpituluak gaztelaniaz

 **Civivox Condestable**

 **Aurkezlea:** Manuel Hidalgo

SAIO BEREZIA



Azaroaren 30ean (J.L.) 90 urte beteko ditu Woody Allen zinemagile newyorktarrak. Irudiak mugimenduan dituzten istorioen sortzaileen Olinpoan agertzea merezi duen zinemagile garaikideetako bat da. Jenioen nolakotasuna du (oparotasuna), baita zinemagile batek behar dituen hainbat bertute: zuzendu, idatzi, interpretatu eta, konposatzen ez badu ere, bere musika-belarri finak (duela urte askotatik jendeaurrean klarinetea jotzen du Preservation Hall Jazz Banda taldearekin) ia film guztietan entzuten ditugun musika-konposizio hautatzeko aukera eman dio, bereziki jazz goiztiarra. Bere filmek askoz bertute gehiago dituzte, baina guztiak beren gidoietatik askatzen dira, eta horietan aurkitzen dira bere obsesioak: bizitzaren iheskortasuna, sexua, harreman sentimentalak, heriotza, erlijioa, sormena eta intelektualak, etab.

Filmografia zabala du, 1966an *What's Up, Tiger Lily* film luze ia experimentalarekin hasi eta komiko gisa ezagutzea eman zen *Toma el dinero y corre* (1969) filmarekin. Komediari eskainitako etapa baten ondoren, genero dramatikorantz jo zuen *Annie Hall* (1977) filmarekin. Bertan, zinemagile gisa izena lortu zuen, eta, besteak beste, Film Onenaren, Zuzendari Onenaren, Emakumezko Aktore Onenaren (Diane Keaton) eta Gidoi Onenaren (Marshall Brickman eta W. Allen) Oscar sariak lortu zituen. Bera izan zen Aktore Onenaren hautagaia. Ezohiko gertaera izan zen, eta ez parekatua, pertsona bera zuzendari, gidolari eta aktore izateko hautagai izatea. Bere ibilbidean 7 aldiz izan da Oscar sarietarako hautagai zuzendari onenaren atalean, 16 aldiz jatorrizko gidoi onenarentzat, batek aktore gisa eta bere filmek 3 izendapen jaso dituzte, eta hori ez da beste ezein zinemagileengan agertzen.

Bere filmografia oso eta anitzetik (komediak, dramak, tragediak, musikalak, thriller-ak, fantastikoak, dokumental faltsuak eta abar zuzendu ditu; bost film zuri-beltzean filmatu ditu), bere benetako umore-sen bereziak bahetuta, bere garaian enblematikoa izan zen bat aukeratu dugu. Film hau beti bizi izan den hiriari egindako omenaldia da, eta une antologikoak biltzen ditu, bere gustu artistikoei buruzko bakarrizketa labur bat barne. Berak bere pertsonaiak bera bezalakoak direla beti ukatu du, hala ere, ikusleak hori onartzea zaila da. *Manhattan* (1979) film betikoa da, eta zinemagile horri omenaldia egiten zaio. Ziur asko, ez dugu bere beste estreinaldi bat pantailan ikusiko. Estreinaldi batean ez dugu gehiago ikusiko Diane Keaton, film honetako bikote protagonista, eta hura ere omenduko dugu duela gutxi hil ondoren.

MANHATTAN

Osteguna 20.11 | 19:30h.



Isaac Davisek, adin ertaineko newyorktar batek, gorroto duen lan bat du, maite ez duen 17 urteko neskalagun bat eta bere ezkontzaren intimitateak kontatzen dituen liburu bat idazten ari den emazte ohi bat. Mary, bere lagunik onenaren sexy eta snob maitalea, ezagutzen duenean, erabat maiteminduko da. Neskaguna utzi, Maryrekin oheratu eta bere lana uzteko ideia bizitza berri baten hasiera da berarentzat.

Manhattan arrakasta handia izan zuen kritikaren eta publikoaren aldetik, eta Woody Allenen lanik adierazgarrienekotzak jotzen da. Filma bi Oscar saritarako izendatu zuten (Jatorrizko Gidoi Onenaren Saria eta Antzeztaldeko Emakumezko Aktore Onenaren Saria Mariel Hemingwayentzat) eta Film Onenaren BAFTA saria eskuratu zuen. Proiektzio hau aprobeztatuz omenaldi txiki bat egin nahi diogu Diane Keatoni, Woody Allenen musa izan dena eta duela gutxi zendu dena.

Zuzendaria: Woody Allen

Gidoilariak:

Woody Allen, Marshall Brickman

Musika: George Gershwin

Argazkilaritza: Gordon Willis (Z/B)

Interpreteak: Woody Allen, Diane Keaton, Mariel Hemingway, Michael Murphy, Meryl Streep, Anne Byrne Hoffman, Wallace Shawn

Herrialdea, Urtea
AEB, 1979

Iraupena
96 min

Hizkuntza

J.B. ingelesez; azpitituluak gaztelaniaz

Aurkezlea: Alberto Cañada

PUNTO DE VISTA FOKUA



Punto de Vistak Irati Gorostidirengan jartzen du bere Fokua azaroan, azaroaren 28an estreinatuta *Aro Berria*, Nafarroako zuzendariaren lehen film luzea izanik, eta Zinemaldia 2025eko epaimahaiaren aipamen berezia jaso zuen New Directors sailean. Jaialdiak ibilbidea proposatzen du Gorostidiren obratik, 2021ean X Films proiektuaren irabazlea izan zena. Hortik *San Simón 62* sortu zen, Mirari Echávarriekin batera zuzendutako film labur dokumentala eta Arco Iris komunitatearen inguruko zinemagilearen esplorazioa hasteko ernamuin gisa balio izan zuena. *San Simón 62*tik aurrera, Gorostidik, fikziotik hasita, *Contadores* garatu zuen, Cannesekeo Kritikaren Astean estreinatua, eta duela gutxi Ikusmira Berriak egoitzan parte hartu zuen *Aro Berria* film luzea eta Zinemaldian estreinatu zena. Horrek sortzen ari diren zuzendari independente interesgarrienetako bat bihurtu du.

PUNTO DE VISTA

Osteguna 11.27 | 19:30h.

UNICORNIO



lhesean, M. etxe abandonatu batean babestuko da. Tokira egokitzen saiatzen ari den bitartean, etxearen kanpoaldean oinatzak aurkituko ditu, eta horrek atea irekitzera bultzatuko du. Ustekabeko bisitari bat, bere babeslagun bihurtuko dena, etxean sartuko da.

Zuzendaria eta gidoilaria:

Irati Gorostidi Agirretxe

Argazkilaritza: Ion de Sosa (K)

Musika: Ibon RG

Interpreteak: Claudia Pagès Rabal

Herrialdea, Urtea
Espainia, 2021

Iraupena
17 min

Hizkuntza

Elkarriketarik gabe

SAN SIMÓN 62



80ko hamarkadan, Nafarroako komentu batek Ortzadar komunitatea hartu zuen. Gaur egun, klausurako monjeak bizi dira eraikinean, eta garai hartako aztarnak ezin dira hauteman. Bi zinemagile bertara hurbiltzen dira, euren amen testigantzek erakarrita; izan ere, frankismoaren ondorioetatik askatu nahian, komunitatetik igaro ziren.

Zuzendaria eta gidoilaria:

Mirari Echávarri López,

Irati Gorostidi Agirretxe

Argazkilaritza: Mirari Echávarri López, Irati Gorostidi Agirretxe (K)

Herrialdea, Urtea
Espainia, 2022

Iraupena
29 min

Hizkuntza

J.B. gaztelaniaz

CONTADORES



1978an metalaren hitzarmen berri baten aldeko negoziazioetan, militantelibertarioen talde batek bere jarrera erradikala defendatu zuen fabrikako kideen aurrean, langile mugimenduaren atomizazioa etsipenez adierazten duten bitartean.

Zuzendaria eta gidoilaria:

Irati Gorostidi

Argazkilaritza: Ion de Sosa (K)

Sonido: Unai Giménez González

Interpreteak: Santiago Fernández de Mosteyrín, Jaume Ferrete, Claudia Pagès, Iskandar Rementería, Maite Ronse, Natalia Suárez, Marina Suár

Herrialdea, Urtea
Espainia, 2023

Iraupena
19 min

Hizkuntza

J.B. gaztelaniaz

FILMOTECA
EN NAVARRA
FILMOTEKA
NAFARROAN

Altsasua - Altsasu

Centro Cultural Iortia Kultur Gunea

Azaroak 17 Noviembre
19:00



Ciclo 'Cine y Ciencia' Zikloa

GATTACA

Presentación y coloquio - Aurkezpena eta solasaldia
Especialista SINAI

FILMOTECA
EN NAVARRA

FILMOTEKA
NAFARROAN

Tafalla

Centro Cultural *Kulturgunea*

Azaroak 19 Noviembre

19:00



EN EL BALCÓN VACÍO

Presentación y coloquio - Aurkezpena eta solasaldia

Luis Juárez

FILMOTECA EN NAVARRA FILMOTEKA NAFARROAN

Auritz-Burguete

Casa de Cultura / Kultur Etxea

Azaroak **21** Noviembre

19:00



Ciclo 'Cine y Ciencia' Zikloa

GATTACA

Presentación y coloquio - Aurkezpena eta solasaldia
Especialista SINAI

INFORMAZIO ERABILGARRIA

Prezioak

- **Saioak Kondestable Civivoxean** (Irlandako zinema erakustaldia): Sarrera doain.
- **HIRIA ZINEMA KLASIKOAN.** (Azaroak 5, 12, 19 eta 26): Sarrera librea (leihatilan gonbida-pena jaso ondoren)
- **Nafarroako filmoteka** (azaroak 6 eta 20): 1 €.
- **Beste saioak:** 3€.
- **10 SARRERAKO ABONAMENDUA** (6 hilabeterako balio du): 20€.

Abonamenduek ez dute esan nahi saioetarako sarrerak erreserbatzen direnik, Filmotekako leihatilan sarrerak eskuratzeko eskubidea baizik, betiere dagokion saiorako sarrerak geratzen badira. Beraz, lehiatilara behar besteko aurrerapenarekin iristea gomendatzen da, sarrerak eskuratzeko.

Sarreraren salmenta

- **Lehiatilan:** Saioa dagoen egun guztietan. Leihatilaren irekiera saioa hasi baino 45 minutu lehenago.
- **Internet bidez:** www.filmotecanavarra.com webgunean (saioa hasi baino ordu erdi lehenago arte).
- **Telefonoz:** 679 968 580

Saioa hasi ondoren, ez da sarrerarik kaleratuko eta ez da aretora sartzen utziko.

Bizikidetza eta higie-ne onaren alde, ezin da janaririk edo edaririk kontsumitu proiektzio-aretoaren barruan.

Programa aldaketei lotuta dago. Gerta daitezkeen gorabehera guztiak www.filmotecanavarra.com webgunearen bidez jakinaraziko dira.

Proiektzioak

Filmak jatorrizko bertsioan proiektatzen dira, gaztelaniazko azpitituluekin. Nafarroako Filmotekak akordio bat du EOIPrekin, ikasleei saioetarako sarbidea errazteko.



Más información
www.filmotecanavarra.com



FILMOTECA DE NAVARRA

Edificio Biblioteca y Filmoteca de Navarra
Paseo Antonio Pérez Goyena, 3. 31008 Pamplona.
Tel: 848 424 759. filmoteca@navarra.es